

Inertzia gainditzen



DIANA FRANCO

Pasa den astean Hezkuntzan Librezaletaldeak, *Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarriak* txostenaren baitan, zenbait iruzkin partekatu zituen digitalizazioari lotuta. Taldeko askok txostenaren "musika" oro har gogoko dutela adierazi zuten telegram bidez duten taldean. Baina, sakonki irakurtzen hasita, txostenak zenbait gauza hobeto zehazteko beharra duela zioten eta ekarpen benetan ederra partekatu dute taldearen webgunean. Horko zenbait ideiatatik tiraka nabil, idatzi ahala nik ere barnerratu eta hobeto ulertuko ditudalakoan. Adibidez, oso interesgarria da ahalduz digitala eta konpetentzia digitala bereizi dituztela. Konpetentzia digitala erabiltzaile izateari zuzenduta dagoen kontzeptuarekin harremanetan dute eta ahalduz berri, eragile izateari loturiko ideia barnerratzen duela ikusten dute. Horrekin ulertzen dudana zera da, hezkuntzan sustatzen dugun digitalizazioaren arabera, errealitatean eragiteko tresna gutxiago edo gehiago emango dizkiegula ikasle zein irakasleei. Agertu duten beste kezka bat da hezkuntzan teknologiararen areagotzea bultzatu nahi dela, teknologia digitala izatez onuragarria balitz bezala. Zentzu horretan, digitalizazio gehiago onura gehiagorekin lotzea saihestu behar da, funtsa ez baita digitalizazio gehiago, digitalizazio hobea baizik.

Eta hemen dator auziaren muina: zelan gainditu inertzia, zelan landu hezkuntzarako digitalizazio hobea bat?

Galdera horri erantzutea da nire ustez hezkuntzaren erronka handietako bat. Eta erantzunak txostenean bertan dauden beste osagai batzuekin harremana izango duela uste dut: tokikoa, burujabea, naturari lotua, komunitateari lotua... Azken batean, hezkuntzaren digitalizazioak ezin duelako geruza isolatu bat izan, hezkuntzaren digitalizazio hobea hezkuntzaren eredia bera eraldatzen dagoen seinale izango baita. ●



Isilpeko gerrak su etenik ez

AXIER LOPEZ

Urteak, hildakoak eta desplazatuak pilatzen jarraitzen du inori axola ez zaion beste gerra horietako batek. Baina hori ez da txarrena, zazpi urte eta gero hobekuntza zantzurik ez dagoela baizik. 2015ean Saudi Arabiak sustatutako nazioarteko koalizio batek Yemen erasotzeari ekin zion, AEBen, Erresuma Batuen eta Frantziaren babes "logistikorekin". Bada, aurtengo urtarrila izan da hilabeterik odoltsuena. Yemen Data Project proiektuaren arabera, urtarrilean Saudi Arabiako bonbardaketek 139 zibil yemendar hil dituzte, eta 287 zauritu.

Otsail hasieran Nazio Batuen Erakundeko sei langile -bost yemendar eta bulgariar bat- bahitu dituzte Arabiar Emirerri Batuen babesaren miliziaren kontrolpeko zonalde batean. Saudi Arabiak gerran daukan aliatu nagusietako bat dira Emireerriak. Diktaduren artean ondo konpontzen dira.

Yemengo munduko krisi humanitario larriena dela dio NBek. Erakundearen arabera, 377.000 pertsona inguru hil dituzte borroken, edateko ur faltaren, gosearen eta gaixotasunen eraginez. Nazioarteko programa humanitarioak gutxitzen ari direla salatu du NBek, eta borroka-guneak, aldiz, ugaritzen. Herritarrek ihesbide gutxi dute, etsai eta itsaso artean harapatuta. Gainera, Yemenen COVID-19aren laugarren olatuak jo du, eta gerrak desplazatutako ehunka mila pertsonen artean askok eta askok ez du oinarritzko zerbitzurik, komuna

edo edateko ura kasu. Gatazka hasi zenetik ia zazpi urte igaro ondoren, osasun-zentroen erdiek soilik jarraitzen dute martxan, eta, beraz, hiru yemendarretik bik ez dute osasunzerbitzuetarako sarbiderik.

Eta bien bitartean, Mendebaldean gatazkarekiko nagusitu den jarrera da negoziario ezin dela eten. Yemengo masakrea elikatzeko, gutxienez 2017tik aurrera Bilboko portutik pasa diren armaz betetako itsasontziek kritikak jaso zituzten, Eusko Jaurlaritza ostrukarena egiten saiatu zen bitartean. Bilboko Portuko buru Asier Atutxak maisuki uztartu zituen multinazionalen bihozgabetasuna eta politikarien pragmatismoa: "Begira, arma trafikoa legezkoa bada, guk lan logistikoa egingo dugu". Zeren, bai, Saudi Arabia diktadura wahabista da, baina diru asko dauka eta Espainiako eta Euskal Herriko industriaren bezero handietako bat da. Negozioen munduan etika hippyen gauza da.

Zaharrak berri. Berriki jakitera eman dute Saudi Arabiak Espainiako suziri sorta berri bat eskuratu duela. Armak bi edukiontzitan eraman zituzten urrian Valentiako Saguntoko portutik. Espainiako "ezkerreko" Gobernuak adierazi du "Yemengo gerran parte hartzen duten herrialdeek ez dutela nazioarteko zigorrak edo armak eta Poliziarentzako materiala esportatzea debekatzen duen enbargorik". Eta horrela, erraztasun horrekin, justifikatzen da axolagabekeria sarraski baten aurrean, baita indarretatik etekinak lortzeko grina ere. ●